

# ELIZANBURU

---



Ona emen Elizanburu'ren arpegia, irakurlea. Zuk ondo dazauzuz Elizanburu'ren neurtitzak : neurtitzen egillea ere ezagutu ezazu bada, maite ditugunak ezagutze gauza pozgarria da beti-ta.

Euskeraz idatzi duten neurtizlariak aitatzean, beti entzungo zenduan Elizanburu'ren izena onenen artean : nik beintzat ala ipintzen det. ¿ Zergatik ? Euskaldunentzat gozoenak, pozgarrienak diran gauzak aitatu zitalako bere eresietan, bere neurtitze-tan.

Biotz-biotzez maite du euskaldunak bere et̄sea. Argala bada, apaña bada, zarra dala, berria dala, baserria izan, jauregia izan, bere et̄sea maite du euskaldunak, eta arretaz begiratzen dio

beti. Elizanburu'k ere maite zuan bere et̄sea. Neurtitz egokiak, s̄amurrak, egiazkoak, biguñak eta aukerazkoak zuzendu zizkion bere et̄sari. ¿ Nork ez dakizki buruz neurtitz aiek ? ¿ Nork ez ditu bein baño geiagotan erestu ? ¿ Nor ez da neurtitz aiezaz oroitu et̄setik urruti gogoia et̄se aldera biurtzean ? ¡ Et̄sea ! Izen dontsudontsu ta gozoa. Et̄sean gordezen dira gogapen s̄amurrenak ; et̄sean agertzen gere geran bezelakoak, arrotz-azalik gabe. Et̄setik urruti beste batzuek bezela gera ; ez gera gu gure izenean gabiltzanak. Ala uste zuen beintzat Elizanburu'k eta ala zion berak, bere buruagatik :

Et̄setik kanpo zait iduritzen  
Nonbait naizela galdua.

¿ Zer zuan, ba, Elizanburu'ren et̄seak ainbeste maite izateko ?  
¿ Zer ? Lau aitz aundi inguruan, iturrit̄so bat aldamenean, baratz loreduna gertu ta t̄sakur t̄siki bat atean, ¿ Guṽsi al da ? Bazuan geiagio ere. Bi idi aundi mendian, bildots̄ak, beiak, auntzak, ardiak... Et̄se ura ordea, bere-berea zuan, bere sorlekua, aiten-aitak autatua. Bazuan andrea, bazuan semea, alaba ere bazuan ets̄ean. ¿ Zer geiagio bear zuan bada Elizanburu'k bere et̄sea, berea, aiten aitak autatua maite izateko ?

Gure jaioterria ere maitedegu euskaldunak ; urrutiratu ezker, beti gogoan ditugu gure erriko eliza, kale, bide, ibai la gauza guztiak. Noizbait norbaitek gure erriagatik gauza t̄sarren bat esaten badigu biotzean min artzen degu. ¿ Erri t̄sikia dala ? ¿ Zatarra dala ? ¿ Eliza zarra ta et̄se beltzak dituala ? Bide estuak dirala angoak ? ¿ Ta zer, ala ere, gure erria bada ? ¿ Ez aldakigu, ba, nolako poza enlaten duan gure erri t̄siki, zatar, beltza ikusteak ? Zoaz, zoaz urte batzuetarako urruti, ta atoz gero ; ikusiko dezu biotzak zer esaten dizun. Elizanburu ibilli zan erritik urruti, ta biurtzean, ona zer zion bere biotz ibilokiari :

¿ Zer duk ere bihotza, saltoka barnean ?  
¿ Ote duk uts eginen errira eltzean ?

Euskaldunak maite du bere erria, maite du bere et̄sea ; beste alde batzuetara ere zuzentzen du ordea maitetasuna. Baita Elizanburu'k ere. Elizanburu'k maite izan zuan *Aingeru bat*, bere neurtitzak diotenez. Baña aingeru ura, etzuan gizonak maite iza ten duten bezela maite izan. Aingeru ura garbi-garbia zan, zerutik eroria ; lureko lokatz-zipriztiñak zikindu ez zezaten,

zerura begira bizi zedilla eskatzen zion Elizanburu'k. Begiak lurrera beñere biurtzen ez dituan emakumea, ez da ordea lurrean bizi izateko jaio : gizon ameslarien irudimenean bizi izateko bekarrik.

*Maria* ere maite izan zuan Elizanburu'k. Maria bai, lurrean bizi izateko jaioa zan, bear bezela, Jaungoikoak agindu zuan bezela bizi izateko, lurrera ta zerura begira bizi izateko. Mendietako alaba, gure baserrietako emakume langille, t̄sukun, polit alai, ariña zan Maria.

Erle bat da Maria et̄se barnean  
 Eta laudan orobat hari laman  
                   Behar denean ;  
 Apaintzeko pulliki bein astean  
 Niz ?                   Igandean,  
 Uztai beharrik ez du soinaren pean.

Elizanburu'k, gauza guztientzat maitetasuna agertzen zuan neurtitzetan : pozik bizi zan, zoriontsu. Ezin ezer eska zezakean : berekin zuan dena, etzuan ezerean bearrik. Poztasun ori eramaten zuan bere neurtitzetara ere : orra zer dala ta ain gogoz irakurtzen ditugun Elizanburu'ren neurtitzak.

Nai ainbat ezin irakurri ditugu ordea. Elizanburu'k egindako neurtitzak, beste askorenak bezela, banatuta dabiltz, bakoitza bere aldetik. Baña entzen detanez, Elizanburu'ren neurtitz ederrak billatu, bildu ta balean azalerazteko arloa artu du norbaitek. Lan ederra izango da oriše ; ederra ta bearrezkoa. Euskalerriko ereslarien neurtitz geienak or dabiltz banatuta, bat emen, bestea an, alkarrengandik urruti. Billatu, bildu ta saill batean argitaratuko dituanak, ez dio euskerari aurrerapen t̄sikia emango.

¡ Beto, ba, len-bai-len Elizanburu'renak !

GREGORIO DE MUJICA.

